
Inbertsio-erabakiek jasagarritasun faktoreetan izan ditzaketen ondorio kaltegarri nagusiei buruzko urteko adierazpena.

2021. urtea

1. Sarrera eta irispidea

Pentsio Funtsen Erakunde Kudeatzailea den Kutxabank Pensiones SAUk (aurrerantzean, “**Kutxabank Pensiones**” edo “**Erakundea**”), jasagarritasun arriskuak **integrazzeko moduari** eta jasagarritasunaren arloko **ondorio kaltegarrien azterketari lotutako** gardentasunaren esparruan, kudeatzen dituen pentsio funtsetan egindako inbertsioei dagokienez, inbertsio erabakiek jasagarritasun faktoreetan eragin ditzaketen ondorio kaltegarri nagusiei (aurrerantzean, OKN) lotutako arrazoizko arretaren politikak jasotzen zituen adierazpena egin zuen (aurrerantzean, “Adierazpena” edo “OKNen adierazpena”), 2021eko ekainaren 30ean.

Kutxabank Pensionesen arabera, kudeatzen dituen pentsio funtsen inguruan hartutako inbertsio erabakiek eragin negatiboa edo ondorio kaltegarriak izan ditzakete ingurumen, gizarte edo gobernantzari lotutako faktoreetan. Horretarako, arrazoizko arretaren politika ezarri du, non azaltzen baititu ondorio kaltegarri jakin batzuk (ondorio kaltegarri nagusiak), kontuan hartzeko eta, ahal den heinean, beren inpaktua murrizteko.

Aipatu adierazpenaren bidez, Kutxabank Pensionesek konpromisoa hartzen du banakako sistemako Pentsio Planak (aurrerantzean, “Banakako Pentsio Funtsak”) osatzen dituzten Pentsio Funtsen ondorio kaltegarri nagusiei buruz informatzeko. Horrez gain, Erakundeak pentsio funts elkartu bat kudeatzen du, baita enplegu sistemako beste pentsio funts bat ere; azken horren kasuan OKNak ez dira kontuan izaten, funtsaren tamaina, izaera eta jardueren eskala dela eta.

Erregelamendu bidezko garapenak (Regulatory Technical Standards edo RTS) 2023ko urtarrilaren 1era arte ez dira aplikatuko; bestalde, merkatu hasiberria dela eta informazioaren kalitatea bilakaeran dago eta, gaur egun, mugatua da; hori guztia kontuan hartuta, interpretazio hobearen eta aukera praktikoen ikuspegitik egiten da urteko adierazpen hau.

2. Ondorio kaltegarrien identifikazioa eta kudeaketa. 2021ean hasitako ekintzak

OKNen adierazpenean, Banakako Pentsio Funtsei dagokienez, jasagarritasun faktore batzuk identifikatu dira; guztiak batera inpaktua ikuspegi hirukoitz batetik neurtzen saiatzen dira: ingurumena, gizartea eta gobernantza kontuan hartuta.

Adierazpenari jarraikiz, 2021eko ekainetik abendura bitartean kontuan izandako Ondorio Kaltegarri Nagusiak azaltzen dira:

1. Jaulkitzaile pribatuak:

- Karbono aztarnaren intentsitatea
- Denbora galtzea ekarri duten gorabeherak
- Genero ordezkariak plantillan
- Administrazio Kontseiluaren tamaina egokia
- Kontseilari independenteen kopurua

2. Jaulkitzaile publikoak:

- Giza garapenaren indizea (NBE)
- Gobernantza indizeak (Munduko Bankua)

3. IKE:

- Morningstar globoak

Adierazle horiek bere garaian argitaratu ziren datuen eskuragarritasunaren eta kalitatearen arabera aukeratu ziren.

Erakundeak OKNen inguruan egiten duen tratamendua banakako pentsio funtsei lotutako inbertsioetan zentratu da; inbertsio horiek zorro horien kudeaketaz arduratzen den inbertsio erakundearen bidez burutzen dira, hau da, "Kutxabank Gestión SGIIC, SAU" erakundearen bidez (aurrerantzean, "Kutxabank Gestión" edo "Inbertsio Erakundea", bata zein bestea).

Horri dagokionez, honako neurri hauek har daitezke: inbertsiorik ez egitea, desinbertsioa, esposizioa murriztea edo aktibo edo jaulkitzaile jakin batzuk behaketan jartzea, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren inplikazio ekintzak hasita.

Illo horretan, 2021. urtean zehar, Inbertsio Erakundeak banakako pentsio funtsen zorroak eratzeko prozesu osoan txertatu ditu OKNak:

- Inbertsio unibertsoaren hasierako iragazkia, baztertzeko elementuen zerrendaren bidez, jokabide arduratsuen kode nagusietan ezarritakoa jasota.
- Aipatutako adierazleak aktiboak (akzioak, zorra) hautatzeko prozesuan integratzea, erabaki prozesuan finantza alderdiak zein jasangarritasunari lotutako horiek konbinatuz.
- Zorroa eratzeko prozesua: elementuak zorroan izango duen garrantzia jasangarritasun irizpideen arabera esleitzea (barne mugen bidez edo erreferentziazko indizeekiko konparazioan).

- Arriskuen kontrola: azaldutako adierazleak zorroek onartzen dituzten arriskuak kontrolatzeko prozesua osatzen dute.
- Klima aldaketaren arriskuaren gaineko berariazko kontrola: erakunde kudeatzaile osoaren mailan, PACTA tresna erabili da klima aldaketari buruzko Pariseko Akordioan ezarritako helburuekiko bat etortze maila aztertzeko.

Inbertsio Erakundea, 2022an, ezarritako eredia berraztertzeko prozesuan egon da murgilduta, legegilearen iritziz erakundeentzat nahitaezkoak diren OKNen adierazle garrantzitsuenak ezarri ondoren (adierazle horiek behin betiko onarpenaren zain daude oraindik). Gauzak horrela, aipatu Inbertsio Erakundeak etorkizuneko erreferentziatzat hartzea erabaki du, 2023/01/01era arte indarrean jartzen ez badira ere. Urtean behin, berrazterketa bat egingo da, aldagaik eta parametroak aztertzeko, Erakundearen ESG politiketik OKNak behar bezala aintzat hartzen dituztela egiaztatzeko eta, hala badagokio, balizko hobekuntzak detektatu eta egiteko.

3. Kudeatzen diren pentsio funtsetan integraturik dauden baloreei dagozkion eskubideak gauzatzea

Kudeatzen diren pentsio funtsetan integraturik dauden baloreei dagozkion eskubideak parte-hartzaile eta onuradunen onurarako gauzatu dira. Batzordeetan eta batzar nagusietan parte hartzeko eta botoa emateko eskubidea era aktiboan gauzatu da eta posizioen materialtasunaren arabera, irizpide finantzarioak zein finantzekin zerikusirik ez dutenak kontuan hartuta eta Ondorio Kaltegarri Nagusien inguruko arrazoizko arretaren filosofia jasota.

4. Enpresako jokabide kode arduratsua errespetatzea

Erakundeak enpresako jokabide kode arduratsua dauka. Kodea Erakundeko langile guztien eskura dago eta guztiek bete behar dute nahitaez.

Jokabide kode horrek dio jasangarritasuna Erakundearen balioetako bat dela; gainera, azpimarratzen du Erakundeak, murgilduta dagoen gizartearen aberastasuna eta ongizatea sortzeko helburua betetz, enpresa etika arduratsua ezarri duela, Erakundearentzat balioa sortzea eta garapen jasangarria bateratzen dituen, garapen hori honako hauei lotuta dagoela: ingurumena babestea, kohesio soziala, lan harremanen aldeko esparru bat garatzea eta Erakundea eta gizartea harremanetan jartzen dituzten kolektibo desberdinekiko komunikabidea –egiazkoa eta gardena– ezartzea.

Kutxabank Pensionesek eskuordetutako banakako pentsio funtsei lotutako inbertsioak egiteko ardua bere gain hartu duen Inbertsio Erakundea Nazio Batuen Erakundearen ekimena den UN PRI “United Nations-Principles for Responsible Investment” Printzipioei atxikita dago: Inbertsio Arduratsua Printzipioak sinatzaileek borondatez onartzen dituzte eta inbertsioak egiteko ohiko jardunbideetan ingurumenaren, gizartearen eta gobernu onaren parametroak integratzeko tresnak dira.

5. Erreferentziako araudiak

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko 2019/2088 (EB) Erregelamendua, finantza zerbitzuen sektorean jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoa.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/828 (EB) Zuzentaraua, 2017ko maiatzaren 17koa, 2007/36/EE Zuzentaraua aldatzen duena, akziodunen epe luzerako inplikazioa sustatzeari dagokionez.
- Commission Delegated Regulation (EU) .../... of 6.4.2022 supplementing Regulation (EU) 2019/2088 of the European Parliament and of the Council with regard to regulatory technical standards specifying the details of the content and presentation of the information in relation to the principle of 'do no significant harm', specifying the content, methodologies and presentation of information in relation to sustainability indicators and adverse sustainability impacts, and the content and presentation of the information in relation to the promotion of environmental or social characteristics and sustainable investment objectives in pre-contractual documents, on websites and in periodic reports.

2022ko ekaina